

KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEI BURUZKO POSIZIONAMENDUA



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Eginbidea, Idazkaritza Exekutiboarena, zeinaren bidez jasotzen baita posizionamendu hau 2018ko azaroaren 24an egindako 63. Batzar Nagusi Arruntean onetsi zela, lehendakariaren oniritziarekin.

José María Rosell Bueno

*Presidente de la Coordinadora de
Representantes de Estudiantes
de Universidades Públicas /
Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Kordinakundearen idazkari
exekutiboa*

Pablo Alcaraz Martínez

*Presidente de la Coordinadora
de Representantes de
Estudiantes de Universidades
Públicas / Unibertsitate
Publikoetako Ikasleen
Ordezkarien Kordinakundearen
lehendakaria*

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. Sarrera | 2 |
| 2. Zer eredu nahi dugun | 3 |
| 2.1. Kanpoko praktika akademikoei buruzko orokortasunak | 3 |
| 2.1.1. Curriculum praktiken alderdi espezifikoak | 6 |
| 2.1.2. Curriculum praktikak lanbide arautuetan | 6 |
| 2.1.3. Curriculumez kanpoko praktiken alderdi espezifikoak | 7 |
| 2.2. Praxi txarren aurkako borroka | 7 |
| 3. Ondorioak | 10 |



1. Sarrera

Dokumentu honen bidez, Unibertsitate Publikoetako Ikasleen Ordezkarien Koordinakundearen (CREUP) ikuspegia eman nahi da unibertsitateko kanpoko praktika akademikoei buruz, egungo egoera aztertu eta nahi dugun ereduaren oinarriak ezarri.

Kanpoko praktika akademikoak prestakuntza jarduera gisa definitzen ditugu, eta horren helburua da unibertsitateko prestakuntza akademikoan ikasleek lortutako gaitasunak eta ezagutzak aplikatzea eta osatzea, etorkizuneko lan jarduerari begira. Kanpoko praktika akademikotzat jotzeko, beharrezkoa da praktikak egiten dituen pertsonak unibertsitatearekin harremana izatea eta tutoretza bikoitza izatea.

Gaur egun, gazte-gazterik langabezian egoten garenez eta zaila zaigunez gero eta lan merkatu zorrotzagora iristea, azken urteotan kanpoko praktika akademikoak bihurtu dira ia modu bakarra Espainiako Unibertsitate Sistemako ikasleentzat lan munduarekin harremanetan jartzeko.

Gaur egungo legediaren definizioetan kanpoko praktika akademikoek prestakuntza izaera izan arren, errealitatean, gaizki ordaindutako lana egiten ari dela sentitzen du ikasleak kasu askotan, eta praktikak ez datozela bat dagokien prestakuntza-eremuarekin. Horrelako egoerak onartezinak dira, eta beharrezkoa da ikaslea ahalduntzea eta kanpoko praktika akademikoen iruzurraren aurkako tresna egokiak ematea.

«Bekadun» eta «praktiketako ikasle» terminoen inguruko nahastea ere gehitu behar zaio horri; lehena ikasketak edo ikerketak egiteko dirulaguntza jasotzen dutenak aipatzeko erabiltzen da; bigarrenak, berriz, praktikak egiten dituzten ikasle guztiak biltzen ditu, ordainsari ekonomikoa jaso edo ez.

Egoera hori ez da bakana Europan, eta, horregatik, kanpoko praktika akademikoak European Students' Union elkartearen (ESU) egungo lan ildo estrategikoetako bat



bihurtu dira. Elkarrekin salatu du kalitateko lege esparrurik ez dagoela Europako Unibertsitate Eremuko estatu askotan praktikak iruzurrez erabiltzea eragozteko.

2. Zer eredu nahi dugun

2.1. Kanpoko praktika akademikoei buruzko orokortasunak

592/2014 Errege Dekretuaren 3. artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, kanpoko praktika akademikoen lan metodologiaren ezagutza erraztu behar dute, errealitate profesionalera egokitua, non ikasleak ikasitakoa egiaztatu eta aplikatu beharko baitu. Beraz, ikaslearen eta entitatearen arteko kontratu harremanak ez du inolaz ere lan harremanik sortuko, eta ikasleak ez ditu lan zereginak bere gain hartuko entitateak dituen gabeziak konpontzeko.

Unibertsitatearen eta entitate laguntzaileen arteko lankidetzak ikasleen prestakuntza-beharren arabera izan behar du. Entitate horien ardura da hitzarmena prestatzen denean prestakuntza- edukia eskaintzea, eta unibertsitateek beren helburu akademikoari eutsi behar diote.

Unibertsitateetan behar adina langile egon behar da praktika-poltsen kudeaketaz arduratzeko, ikasle eta entitateei ikasleen profil akademikoari buruzko aholkuak emateko, eta hitzarmenak formalizatzen laguntzeko, hitzarmenaren edukia gainbegiratzeko eta baldintzek legezkotasuna betetzen dutela bermatuz. Langileek praktiken jarraipen eraginkorra egin behar dute, edozein irregulartasun azkar antzemateko. Era berean, entitate laguntzaileei eskatu behar zaie Europako Unibertsitate Eremuan kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibideak¹ erabil ditzatela praktiken eskaintzari eusteko, horrela ikasleen eskubideak babestuko baitituzte.

¹ Standards and guidelines for quality assurance in the European Higher Education Area (ESG) Approved by the Ministerial Conference in Yerevan, 14 - 15 May 2015.



Beharrezkotzat jotzen dugu ikasleari prestakuntza osagarria eskaintzea, ez bakarrik praktketan, baita praktikak egin aurretik ere. Gutxienez, laneko arriskuei buruzko prestakuntza eta praktketan lesioak izanez gero egin beharreko jardueri buruzkoa eskaini behar da.

Unibertsitateak aseguruan nahitaez barne hartu behar ditu ikasleak kanpoko praktika akademikoetan egiten dituen prestakuntza-jardueren ondorioz sor daitezkeen arriskuak.

Entitate laguntzaileetan diskriminazio, jazarpen eta/edo indarkeria kasuetan jarduteko protokoloak daudela eta betetzen direla bermatu beharko dute unibertsitateek.

Kanpoko praktika akademikoak lortzeko eta horiek esleitzeko aukera-berdintasuna bermatu behar da, betiere irizpide eta helburu koherenteen arabera, esleipen arbitrarioz edo ausazkorik egin ez dadin eta praktikak eskatzen dituen pertsonaren profilararen arabera esleiri daitezkeen.

Kanpoko praktika akademikoak egiteko ordutegiak bateragarriak izanen dira ikaslearen irakaskuntza, prestakuntza, ordezkaritza eta parte-hartze jarduerarekin. Ahaleginak egingen dira praktikak egiteko aldiak ikaslearen beharretara egokitzeko, irakastorduekin bateragarri eginez.

Praktikak egiteko ordutegiei dagokienez, oro har, ez dira 8:00ak baino lehen hasi behar, ez eta 22:00ak baino geroago amaitu behar ere; hala ere, kasu batzuetan, justifikatutako arrazoiengatik, muga horiek gainditzen ahalko dira. Horretarako, interesdunak jakinaren gainean egon beharko du, praktika horiek egiteko konpromiso formala hartu baino lehen. Arau orokor gisa, egunean 5 ordu edo astean 25 ordu baino gehiago ez dira izanen irakastaldian, ez eta egunean 7 ordu edo astean 35 ordu baino gehiago ere eskolarik gabeko aldiak. Kanpoko praktika akademikoak egiteko, pertsona askok uko egiten diete beren lanei ordutegi-bateraezintasunagatik, edo familia, ikasketak eta ikasleen ordezkaritza bateratzeko arazoak dituzte. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu ikasleak bere



jardueraren ordutegia erakunde laguntzailearekin adostu ahal izatea, hitzarmeneko beste betebeharrak eta/edo ardura batzuetara egokitzeko. Era berean, soberako orduak hurrengo lanaldietatik deskontatuko dira, eta entitate laguntzaileak aparteko orduengatik konpentsazio ekonomikoa ezarri beharko du. Nolanahi ere, komeni da gure praktika sistemaren heterogeneotasuna kontuan hartzea eta unibertsitatearen autonomia errespetatzea.

Era berean, proposatzen dugu praktikak egiteko epea graduiko ikasketa-plana amaitu eta bi hilabetera zabaltzea, eta, hartara, errazagoa izanen da bigarren edo hirugarren zikloko ikasketetara igarotzeko aldi kanpoko praktika akademikoak egitea.

Ikasleak kanpoko praktika akademikoetan egiten dituen lanak Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparrura (MECES) egokitu behar dira. CREUPek zehaztasun handiagoa eskatzen die entitate laguntzaileei lanak esleitzean, eta ikasketa-planen arabera aukera ditzatela. Lanak ikasleen ikasketa mailari egokitzen zaizkiola bermatzeko, hauen arteko kontrol hirukoitzeko sistema betetzeko eskatzen dugu: hezkuntza-lankidetzarako hitzarmena, entitate laguntzailean tutoretzaz arduratzen den pertsona eta unibertsitatean tutoretza egiten duen pertsona.

Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuaren 24. artikularen arabera «ikasleen parte-hartzea errazteko, unibertsitate-arloan eskumenak dituzten administrazioek eta unibertsitateek [...] kanpoko praktikek eragindako gastuak finantzatzeko sistemak sustatuko dituzte». Hortaz, eskatzen dugu kanpoko praktikak egiteko ikasleak gastu ekonomikorik egin behar ez izatea inola ere, bere jardura akademikoari lotuta dagoenaz gain.

Praktikek entitate laguntzaileari balio erantsia sortzen badiote, esleitutako laguntza ekonomikoa izan behar dute, ez homogeneoa, kasu bakoitzaren errealitatera egokituak baizik. Ezinbestekoa da, nahiz eta termino hori erabili, ez alde batera uztea «ordainsari» terminoa, 8/2014 Errege Lege Dekretuak aipatzen duena, zeinak ahalbidetzen baitu praktiketako ikaslea Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.



2.1.1. Curriculum praktiken alderdi espezifikoak

Honako hauek dira curriculum praktikak: «Unibertsitateko ikasleek egindako eta unibertsitateek gainbegiratutako prestakuntza-jarduera bat osatzen duten kanpoko praktika akademikoak. Praktika horien helburua da ikasleek beren prestakuntza akademikoan ikasitakoa aplikatu eta osatzea, hartara, jarduera profesionaletan aritzeko, enplegarritasuna errazteko eta beren ekimen-gaitasuna sustatzeko gaitasunak lor ditzaten.»².

Ikasle guztiek kanpoko praktika akademikoetatik eratorritako jarduerak egin ahal izanen dituztela bermatzeko, praktika egokien gida bat garatzeko eskatzen diegu Gobernuari, autonomia erkidegoei eta unibertsitateei, ikasleari entitate laguntzaileetara behar bezala zuzentzen laguntzeko. Entitateekin egiten diren hitzarmenetan, halaber, ikasleen berezitasunak kontuan hartzea proposatzen dugu, halako eran non gizarte-bazterkeriak eta klase, genero, sexualitate edo bestelako dibertsitate arrazoiren batek eragindako bazterketak ez diezaioten kalterik egin ikasleari, prestakuntza-jarduera garatzeko orduan.

2.1.2. Curriculum praktikak lanbide arautuetan

Kanpoko praktika akademikoak, ikasketa-planetan sartutakoak, beharrezkoak dira prestakuntza-programa garatzeko, eta ikasleek ezin izanen lukete halako esperientziarik lortu lanbidearen errealitatearekin harremanetan jarri gabe. Ikasketa-planetan ezarritako gaitasunak pixkanaka bereganatzen direla bermatu behar dute, praktikak egiten dituen pertsonari langile tituludunen adinako erantzukizuna eman gabe.

Zailtasun bat dago: praktikek lanbidea erreproduzitu behar dute, baina ez dute gainditu behar prestakuntza-jarduera izateari utzi eta lan bihurtzeko muga.

² 592/2 Errege Dekretuaren 2. artikulua, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituena.



Lanbide arautuetarako gaitzen duten ikasketa-planetako kanpo praktika akademikoen egungo eredu heterogeneoa da. CREUPek eredu plurala defendatzen du, kanpoko praktika akademikoak jakintza-arloaren beharren arabera arautzeko aukera kontuan hartuko duena, eta berezitasunak alde batera utziz gero ikasleari kalte egingen dion esparru komuna saihestuko duena.

2.1.3. Curriculumez kanpoko praktiken alderdi espezifikoak

592/2014 Errege Dekretuko 4. artikulua arabera, curriculumetik kanpoko praktikak dira «ikasleek beren borondatez egin ditzaketenak beren prestakuntza-aldian, eta curriculumeko praktiken helburu berak izan arren, ez dira ikasketa-planekoak. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira Tituluaren Europako Gehigarrian (TEG), indarrean den araudiak ezarritakoaren arabera». Hau da, ez datoz bat irakasgai ebaluagarri batekin, nahiz eta batzuetan aukerakotzat har daitezkeen.

Horrelako praktikak gehiegikeria-iturri izaten dira maiz; izan ere, alde batera uzten da prestakuntza-izaera, eta, beraz, ikasleek egin behar dituzten funtzioak ezkutuko lan harreman bihurtzen dira, eta, beraz, gizarte-eragile askok proposatu dute horiek ezabatzea.

CREUPen iritzian, curriculumetik kanpoko praktika horiek arautu egin behar dira, eta haien kalitatea bermatuko duten sistemak ezarri. Gainera, ikasleen lanak prestakuntzakoa baino ez du izan behar, eta ez du inola ere langile kualifikatuen lana ordezkatu behar. Gure ustez, curriculumetik kanpoko praktikak egiten jarraitu behar dute ikasleek, prestakuntzagatik, malgutasunagatik eta ikasleari eskaintzen dioten aukera ugariengatik.

2.2. Praxi txarren aurkako borroka

Ikusi dugunez, askotan, curriculumetik kanpoko praktikak iruzurrezko kontratu-harreman bihurtzen dira, eta ikasleak ez du lan eskubiderik izaten. Unibertsitateen



ardura da ikaslea defendatzea eta jarduera akademiko horren prestakuntza-izaera bermatzea. Gainera, Unibertsitateak jarraipena egin behar du iruzurra saihesteko.

Ministerio eskudunaren erantzukizuna da prestakuntza horien kalitatea eta legezotasuna bermatzea eta ziurtatzea. Beraz, gure iritzian, zenbait mekanismo garatu beharko lirateke, hala nola kanpoko praktika akademikoen errealitatera egokitutako lan ikuskapenak, curriculumekoak nahiz curriculumetik kanpokoak.

Ikasleen eskubideak babesteko balio duen legeria zehatz bat izatea eta garatzea eskatzen du haien errealitateak, ezin baitira lan zuzenbidean babestu eta, beraz, askoz errazagoa baita bere eskubideak urratzea.

Praktiken eskaintzak lan eskaintza bat ordeztan ez duela bermatzeko, entitate laguntzaileak ziurtatu beharko du gaitasun egokiak dituen pertsona kualifikatu bat dagoela gutxienez, ikasleak bete behar dituen eginkizunak eta zereginak bete ohi dituen. Legez kanpoko ordezkapena saihesteko proposatzen dugun mekanismoa da, bidezko arrazoirik izan ezean, pertsona hori praktikak egiten dituen ikaslearen ordutegi berean egotea; horrela, gainera, prestakuntza egokia jasotzen dela bermatu daiteke.

Kalitate Agentziek, unibertsitateekin eta haien kalitate organoekin batera, jardunbide egokien gidak idatzi behar dituzte, eta hor jaso behar dira entitateek eta ikasleek zer jarduera egin behar dituzten prestakuntza emateko. Horrela, praktikak hasi aurretik, prestakuntza-proiektu bat eduki behar da, zehaztuko dituen zer helburu lortu nahi diren, zer lan egin behar diren eta horiek bat datozela egingen dituen pertsonaren oinarritzko gaitasun orokor edo espezifikoekin, ikasketa-planean agertzen direnekin alegia. Agiri horiek hiru aldean artean aldeztu aurretik sinatzen den hitzarmenarekin batera aurkeztu behar dira.

Praktikak egiten ari diren bitartean, entitate laguntzailea ez bada gai izan hitzemandako prestakuntza-proiektua betetzeko, entitate horrek, praktikak egiten ari den pertsonari eta Unibertsitateari berehala jakinarazteaz gain, kalte-ordaina eman beharko dio ikasleari, eta unibertsitateak erakunde horrekiko lankidetzaren hitzarmena deuseztatu beharko du, eta pertsona horrentzako alternatiba bat ahalik eta azkarren bilatu beharko



du, prestakuntza-proiektuan zehaztutako gaitasunak eskuratzea bermatzen duen beste batean.

Praktikak amaitzen direnean, ezinbestekoa da praktikak egin dituen pertsonak azken balorazioa egitea nola egin diren jakiteko. Horrez gain, gutxienez, aditzera eman beharko litzateke nolakoa izan den entitate laguntzaileak emandako tratua, entitate laguntzailearen tutoretza eta unibertsitatearen tutoretza, bete ote diren proiektuan ezarritako zereginak eta eskuratu ote diren adierazitako gaitasunak. Balorazio hori unibertsitateek kontuan hartu beharko dute, eta emaitzak publikoak izan beharko dira.

Unibertsitateak txosten bat egin behar du, gutxienez urtean behin. Txosten horretan, ikasleak egindako balorazio guztien balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa egin behar da. Txosten hori ikaslearen ikastetxearen kalitate-arloan eskumena duen organoari aurkeztu behar zaio, eta kalitatea ebaluatzeko agentziek eta gobernantza-organo eskudunek eskura izan behar dute (ikasleen ordezkariak beren ikastetxeko egoera ezagutu ahal izateko), ikasleen iritzia ikasketa-planen jarraipenean integratzeko.

Hori guztia bete ahal izateko, unibertsitateei protokolo bat prestatzeko eskatzen diegu, entitate laguntzaileak hitzartutakoa ez betez gero edo praxi txarra eginez gero zer jarraibide bete behar diren bilduko dituen. Horrekin, ikasleari segurtasun handiagoa emango zaio horrelako arazoak konpontzeko dituen bitartekoen gainean, eta bermatzen da nora edo norengana jo behar duen irtenbidea bilatzean kontingentziarik ez izateko.

Hitzarmenak sinatzen dituzten entitate laguntzaileei dagokienez, Unibertsitatearen erantzukizuna da ikasleari bere prestakuntza ematen dioten erakunde laguntzaileen jardunbide onak bermatzea, bai eta azken 24 hilabeteetan erakunde horiek lan



eskubideen aurkako delituagatik, lanbide-arloko arau-hauste larriagatik edo bestelako delituengatik irmo kondenatu ez direla ziurtatzea ere³.

3. Ondorioak

Azaldutakoaren arabera, ikasleen eta lan merkatuaren arteko harremana konplexua dela ikus dezakegu. Gaur egungo lan prekarietatearen ondorioz, ikasle askok horrelako jarduerak egiten dituzte lan merkatuan sartzeko modu bakarra delako, eta, batzuetan, praktika-kontratu bat bestearen atzetik sinatu behar izaten dute.

Kanpoko praktika akademikoek ondorio positibo ugari dituzte ikasleengan, lan munduarekin harremanetan jartzeko balio dute, eta ikasgeletan ikasitakoa praktikan jartzeko beharrezko esperientzia eskaintzen dute. Praktikak baldintza onetan eginez gero, positiboak dira, eta kasu batzuetan ezinbestekoak ikasleak bere ikaskuntza behar bezala garatu ahal izateko.

Posizionamendu honetan azaldutako puntuak lortzea bereziki garrantzitsua da iruzur-egoerak ez gertatzeko. Egoera horietan, entitate laguntzaileek ikasleak erabiltzen dituzte lanpostuak ordeztzeko, prestakuntzatik haragoko lanak eginez, lansaririk gabe edo Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino askoz gutxiago ordainduta.

Azkenik, funtsezkoa da praktiken prestakuntza eta unibertsitateen jarraipena ziurtatzea, praxi txarra eta ikasleen eskubide urraketa saihesteko. Hori dela eta, CREUPen ustez, beharrezkoa da kalitate sistemek ikaskuntzaren emaitzak eta ikasleen iritziak ebaluatzea, kanpoko praktika akademikoen errealitatea ezagutzeko.

³ Kaleratze kolektiboko prozedurak, kontratuak etetekoak eta/edo lanaldia murriztekoak, terrorismoa, antolakunde edo talde kriminal baten eraketa edo integrazioa, legez kanpoko elkarteak, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, gizakien salerosketa, partikularren arteko ustelkeria, nazioarteko negozio eta transakzio ekonomikoetan, influentzia trafikoa, eroskeria, iruzurrak, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak, prebarikazioa, bidegabeko eralgitzea, kapitalak zuritzea, lurralde-antolaketari eta hirigintzari buruzko delituak, ondare historikoaren eta ingurumenaren zaintza, edo lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitasuna zigorra.



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEI
BURUZKO POSIZIONAMENDUA